

IKASTETXEAREN PROIEKTUEN LABURPEN FITXA

Eguna / Día	Maiatza 7	Ordua / Hora	13:00 - 13:00
-------------	-----------	--------------	---------------

Ikastetxearen izena / Nombre del centro

Elgoibarko Herri Eskola

Herria / Localidad

Elgoibar

Proiektuaren izena / Título del proyecto

“Matematika egunerokotasunean”

Harremanetarako pertsona / Persona de contacto

Ander Zubizarreta Zufiria

Korreo elektronikoa / E-mail

azz@irakasle.net

Proiektuaren laburpena / Resumen del proyecto

MATEMATIKA EGUNEROKOTASUNEAN”

Konpetentziak,
Konpetentziak,
Konpetentziak . . .
kontzeptua, garapena, ebaluazioa . . .
berriz-berri,
berriketa,
ugari denbora gutxian.
Eta,
ZER, NOLA, NONDIK, ZEREZ . . . ???
Galdera gehiegi buruan eta
Erantzunak, urri poltsikoan!!

Honelatsu hasi ginen. Ausartu, eta aurrera egin genuen. Honela, egindako lanaldiaren berri ematera natorkizue.

ABIAPUNTUA

Garai hartan, Agenda 21ean Energiaren gaiari begira jarriak geundela, gai haxe sakontzea erabaki zuten ikasleek ere, eta zenbait eduki landu genituenean (Energia iturriak, Energia garbiak eta zikinak, eta horien ondorioen inguruko hausnarketa, . . .), beste norabide bat eman genion gaiari.
Aurreko urtean, plastikoak biltzeko edukiontzia eskatu zion gure ikastetxeak herriari, ikastetxe atarian koka ziezagun, eta izango lituzkeen arazoengatik, ukatu egin zigun herriak.
Aurrekari hau gogoan, ikastetxean bertan edukitzeko edukiontzia egitea erabaki genuen, eta ontzia gauzatu arteko bidean sortu zitzaizkigun hainbat arazo eta egoerei irtenbideak bilatzean, MATEMATIKA tresna ezin hobea aurkitu genuen. Hona hemen gertatutakoa...

PLANGINTZA eta ERAIKUNTZA

Kutxaren aurre irudi zenbait egin eta neurriak zehaztu ondoren, baliabideak eskatu, eta denon artean edukiontzia eraiki genuen.

- Egurrak neurrian moztuta ekarri, eta josi.
- Askatu, paper latzez leunduz, egokitu, eta margotu.
- Atzera berriz ere josi, ahoa egin eta ezarri.

Une honetan, denok gogotuta, denok partaide, denok harro sentitzen ginela, hurren urratsa matematikaren alderakoa izan zedin, **Zenbat kosta ote da?** Luzatu nien.

KALKULUA

Denon artean egitea komeni zenaren inguruan hitz egin ondoren,

- Aroztegietara hots egin eta ekarritako egurraren prezioa galdetu genuen.
 - o Prezioak, metro karratuko eman zizkiguten, BEZa ere, esaten zizkiguten.
- Metro karratuaren inguruko informazio bilketa eta hausnarketa egin genituen lehenengo.

- Taldetxoetan antolatu ginen, eta taldeko, pieza baten prezioa lortzea hartu genuen eginkizun eta helburu.
- Metro karratua iruditu, definitu eta kontzeptu berria sakondu, beste egoera zenbaitetan erabiliaz. Talde bakoitzak bere estrategiak asmatu (hipotesiak egin), erabiliz egokitasuna ziurtatu (baieztatu), ondorioak atera eta berri eman gainontzeko taldeei (*)
- Metro karratuaren azpi multiploak ezagutu, eta baliokidetasunak zehaztu arte hausnartu. (*)
- Proporzioak erabiliaz, kutxa osatzen duen pieza bakoitzaren prezioa kalkulatzeko jardun. (*)
- BEZaren inguruko informazio bilketa eta hausnarketa egin genituen hurrengo.
 - Esanahia ulertu eta zertarako erabiltzen den.
 - Zergak: zer dira?
 - Zatikiak eta ehunekoak ezagutu eta prezioa zehazteko erabili.

KOMUNIKAZIOA

Behin edukiontzia eginda eta prezioa zehaztuta geneukala, haren berri zabaltzea hartu genuen helburu.

- Ikastetxeko ikasle guztien parte hartzea eragiteko, Aurkezpen triptikoak diseinatu genituen (egindakoaren berri emanez, zertarako zen . . .) eta bi lehiaketaren deiak egin genituen bertan: maskota eta leloa.
 - Lehiaketa irabazi zuten maskota eta leloa edukiontzian iruditu-idatzi.
- Kokapena zehaztu behar genuen hurrengo.
- Eta oraindik ere, beste aurkezpen bat egin genuen, antzerki laburrak asmatuz eta gelaz gela eta irakasleen aurrean antzeztu genituen.
 - Elkarrizketak jantziak, trebatze entseguak . . .

KOKAPENA

Ikastetxe sarreran kokatu genuen, bazter batean, eta bere atzeko horman paisaia alai eta garbi bat iruditu.

ONDORENAK

Ibilbide honetan ikasitakoekin eta batez ere, sentitutakoarekin, gelan eta ikastetxean eta herrian ere, gogoz hartu dugu parte ingurunearen zaintzan.

- Kutxatxoak: geletan edukitzeko Plastiko edukiontzi txikiak egin eta zabalduz.
- Agenda 21: udalari, herrian ondo ikusten ez ditugunei kargu har diezaion eskatuz, eta ondo egindakoengatik zorionduz.

Herriko gune zikin bat aukeratu, udalari baliabideak eskatu, eta leku haren garbiketa eginez: Erreka garbiketa.